

GURE ARARTEKOA

«Ikusi eta luze azertu ondoren Arrasate Euskaldundu Dezagun Elkarteak Euskal Komunitate Autonomoko Arartekoaren izendapenari buruz Eusko Legebiltzarreko Lehendakari jaunari bidaliriko idatzia, Larramendi Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak zilegitzat jo du jarraian hitzez hitz azalduko adierazpena egitea Eusko Legebiltzarreko kideei:

1.- Gure nahigabe eta ondoeza adierazi nahi diogu Eusko Legebiltzarrari Arartekoa izendatzeko garaian ez duelako kontutan izan hautagaia behar bezala gaiturikoa izatea hain kargu goren eta bereziko egitekoak euskaraz bete ahal izateko Komunitate Autonomoan euskaraz bizi nahi dugun hiritarrek. Horrenbestez, gure hizkuntza eta gure hizkuntz eskubideak Legebiltzar horrek gutxietsizat irizten ditugu, eta narriatutzat hiritar euskaldunek Arartekoarekiko izan genezakeen harremana, ezingo baitugu gure hizkuntzaz egin hirugarren "bitartekari" baten bidez ez bada.

2.- Eusko Legebiltzarrari dagokio Euskal Komunitate Autonomoan euskararen erabilera legez arautzea eta, beraz, egungo legediaren arabera euskararen erabileraren normalkuntzarako arduradunik gorenatariko gisa jokatzea.

Euskararen erabileraren normalkuntzaren aldeko zer nolako hizkuntz politikaren baitan uler liteke Ararteko euskalduna izatetik euskal hiztuna ez den Arartekoa izendatzera datorren erabakia?

Atzerapauso kezagarria deritzogu erabaki horri eta gure ustez, Eusko Legebiltzarrak ondoko hiru puntuok hartu beharko lituzke aintzakotzat:

2.1.- Arartekoaren erakundea Euskal Komunitate Autonomoko egituraketa politiko-administratiboan garrantzi itzeleko zutoina dugu, oso bereziki hiritarren eskubideen babesari dagokionez. Gutxi dira euskal gizartean hain itzal handiko karguak eta ondo baino hobeto dakigu hiritar askok bere eskubidearen bermearen islada ikusi ohi duela Arartekoarengan. Hizkuntzen erabilerak hamaika liskar eta arazo sortzen duen herri honetan egokia al da arazo horietariko asko konponbidean jarri beharko lituzkeen Arartekoa liskarrean dauden bi hizkuntzetariko bakar baten jabe izatea?

2.2.- Euskara eta gaztelera hizkuntza ofizialak dira Euskal Herriko Komunitate Autonomoan, baina guztiok dakigu ez direla baldintza beretan bizi ezta eskualderik euskaldunenetan ere. Herrialde euskaldunetan normaltasunez erabiltzetik oso urrun dago oraindik ere euskara. Hori guztia jakin arren, behin eta berriz entzun

arren gure gizartearen eragile politiko, sozial eta kultural gehienengandik euskararen erabileraren normalkuntzak ezinbestez behar duela euskararen erabilera lehenetsiko duen hizkuntz politika bat, hala ere, kezkatuak dakusagu biak ofizialak izanik ez dauzkatela nonbait eskubide berdinak, ondorioak baino ez baitira jarri behar begibistara: Arartekoa ezinbestez izango da beti gaztelera hiztuna, ez ordea, ikusitakoak ikusita, euskalduna.

2.3.- Zalantzarik ez da Ararteko-gaiak bere baitan gaitasun eta baldintza ugari eduki eta bete behar dituela Legebiltzarrak Arartekorik egokiena onetsi dezan. Kultur Bazkun honentzat gaitasun horien artean EZINBESTEKOA izan behar du kargu horren egitekoei dagokien euskararen eskakizuna. Bestela, lagun bakar bat euskararen eskakizunik gabe hautatua izan dadin bidea zabaltzearen milaka herritar euskaldunek Ararteko euskalduna izateko duten eskubidea narriatu eta kaltetu baino ez da egiten. Zilegi al da hori?

2.4.- Arartekoaren erakundeak bere lana eta egitekoak euskalduntzearen ekimenari heldu zion hasieratik. Eragile egokia izan al liteke euskaraz lan egin ezin duen Arartekoa bere menpeko langileek-eta ez, hain zuzen ere, itzultzaileek-euskaraz lan egiteko erronkari jarraia eman diezaioten?

3.- Gera bedi garbi, legebiltzarkide jaun eta andere, ez dugula gure adierazpenaren edukia izendaturiko Xabier Markiegi jaunarengan pertsonalizatu nahi. Arartekoaren gaitasun eta betebeharrak jakin bati dagokion arazoa da eta, gure uste apalean, Eusko Legebiltzarrari oso osorik egotzi beharrekoa. Uste horrek bultzatu du Kultur Bazkun hau adierazpen hau egitera.

Begirune osoa dio Kultur Bazkun honek Markiegi jaunari, eta begirune horren lekuko garbi adierazi behar diogu bere esanetara dakuala Kultur Bazkun hau euskararen erabileraren benetako normalkuntza lortzeko xedez, eta, oro har, euskal kultura sustatu eta aberasteko xedez eratzen duen zernahi ekimen edo ihardueretan lankide izateko.

4.- Azkenik, Legebiltzarrari hausnarketa hauen bidez gure nahigabea eta kezka adieraztearekin batera, bada aukera honetaz baliatuz legebiltzarkide andere eta jaunei azaldu nahi diegun azken aburu bat: zinez bide luzea da hutsetik hasita euskaldundu eta behar bezala alfabetatzea; jabetzen gara horretaz Kultur Bazkun honetan. Badakigu ere hiritar euskaldunei benetako begirunea dien herriaren ordezkari orok, ahal bezain laster, heldu diola eta helduko diola behar duen mailan euskaldundu eta alfabetatzeari. Eusko Legebiltzarrean, egun, badira bide neketsu horretan barrena abiatuak diren legebiltzarkideak hutsetik euskara maila duin eta egoki batean ezagutu eta erabiltzerainoko helburuarekin.

Bada, hori da Kultur Bazkun honen iritziz eredugarria gure ordezkari politikoengan, eta eredugarria ezezik benetan txalogarria. Horregatik, doakizue euskalduntze edo alfabetatzearen bidean sen eta ganoraz zabilzaten legebiltzarkide andere eta jaunei gure eskerronik zintzoena.

Honaino, Larramendi Kultur Bazkunako Zuzendaritza Batzordeak begirune eta apaltasun osoz Eusko Legebiltzarrari aurkezten dizkion hausnarketak, bidezko izango dituelakoan.




Adiskide Agurgarriak:

Honekin batera bidaltzen dizugu AED elkartean, elebiduna ez den Arartekoaren izendapen berria dela eta, gure Zuzendaritza Batzordean onartu berri dugun karta, zuek ere, Zuzendaritza Batzordean landu eta ados egonez gero beste hainbeste egin dezazuen.

Jakizue, izugarri interesgarria dela, izendapen berri honen aurrean gure egonezina adieraztea izan ere ez da aintzakotzat hartu euskaraz jakitearen derrigorritasuna, Ararteko funtzioen betekizunetarako.

Beste barik eta edozein zalantzaren aurrean gurekin harremanetan jarriko zaretelakoan, adeitasunez agurtzen zaituztegu

Arrasaten, 1995eko martxoaren 21ean



AED ELKARTEA
Pablo Uranga Kaloa, 4 - behea
Telf. 77 12 28 - 20500 ARRASATE

AEDko Zuzendaritza Batzordea



MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

EUSKO LEGEBILTZARRA

Joseba Andoni LEIZAOLA AZPIAZU jna.
Becerro de Bengoa, z/g

01.005 GASTEIZ

Agur jauna:

Idatzi honi erantsirik, Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak joan den martxoaren 30ean Asteasun egindako bilkuran onartutako adierazpena jasotzen duen idatzia bidaltzen dizut, hain zuzen ere, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Ararteko berriaren izendapenari buruzkoa.


Larramendi Bazkunak Eusko Legebiltzarrari aurkeztzen dion adierazpena apaltasun eta begirune osoz egina da, baina argi eta garbi adieraziz zein den Bazkun honetako zuzendaritzaren iritzirik nagusia Ararteko karguaren ezaugarriei dagokienez.

Legebiltzarkide andere eta jaunek gure adierazpena bidezkoztat izango dutelakoan, bihoakizu gure eskerrona zuen arretaldiagatik eta gure begirune osoa. Ondo izan.

Andoain, 1995, apirilak 10.

Lehendakaria,
Izpea.: Jon Unanue López.





MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

ARARTEKOA

Xabier MARKIEGI jna.

Becerro de Bengoa, z/g

01.005 GASTEIZ

Agur jauna:

Idatzi honi erantsirik, Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak joan den martxoaren 30ean Asteasun egin-dako bilkuran onartutako adierazpena jasotzen duen idatzia bidaltzen dizut, hain zuzen ere, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Ararteko berriaren izendapenari buruzkoa.

Larramendi Bazkunak Eusko Legebiltzarrari aurkeztu dion adierazpena apaltasun eta begirune osoz egina da, baina argi eta garbi adieraziz zein den Bazkun honetako zuzendaritzaren iritzirik nagusia Ararteko karguaren ezaugarriei dagokienez.

Oso bereziki azpimarratu nahi dizugu, Markiegi jauna, adierazpenaren hirugarren puntuan adierazirikoa, hots, gure hausnarketak ez duela zerikusirik, zeharretik ez bada, Zeu izendatu izanarekin, Arartekoaren hizkuntz gaitasunarekin baino. Xehetasun horrek biziki kezkatzen gaituelako ondo garbi utzi nahi dizut.

Beraz, nire zorionak zure izendapenarengatik, eta berriro ere adierazten dizut zure esanetara gauzkazuela euskararen erabile-raren normalkuntza gizarte giro egokian egin dadin gauzatzen duzuen zernahi ekimenean lankide izateko. Bihoakizu gure eskerrona zure arretaldiagatik. Begirunez, ondo izan.

Andoain, 1995, apirilak 10.

Lehendakaria,
Izpea.: Jon Unanue López.





MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA

ADUNA, ANDOAIN, ASTEASU, BILLABONA, LARRAUL, ZIZURKIL

Dr. Huizi kalea, 15-1. ezk. 20140 ANDOAIN. (GIPUZKOA)
Tel.: 300733 Fax: 300731 IFZ.: G20438073

AED Elkartea
Miren ARREGI ZUAZUBISKAR and.
Pablo Uranga kalea, 4-behea

20.500 ARRASATE

Agur andere:

Idatzi honi erantsirik, Larramendi Kultur Bazkuneko Zuzendaritza Batzordeak joan den martxoaren 30ean Asteasun egindako bilkuran onartutako adierazpena jasotzen duen idatzia bidaltzen dizut, hain zuzen ere, Euskal Herriko Komunitate Autonomoko Ararteko berriaren izendapenari buruzkoa.

Arrasate Euskaldundu Dezagun Elkarteak bere idatzia bidali aurretik eztabaidatua zuen bazkun honek gaia, baina batere erabakirik hartu gabe. Zuen idatziak bultza gintuen, azkenik, orain bidaltzen dizuegun adierazpena egitera.

Horrenbestez, gure eskerrona adierazi nahi dizuegu behinik behin gure eragile gisa arituagatik. Har ezazue gure agurrik adeiena. Ondo izan.

Andoain, 1995, apirilak 10.

Lehendakaria,
Izpea.: Jon Unanue López.





EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

Legelari Nagusia
El Letrado Mayor



Vitoria-Gasteiz, 1995eko maiatzak 2

Jon Unanue Lopez jauna
Manuel Larramendi Kultur Bazkuna
Dr. Huizu kalea, 15-1. ezk.
20140, ANDOAIN (GIPUZKOA)

Jaun agurgarria:

Eusko Legebiltzarreko Mahaia, 1995eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, Ararteko berria hautatu eta izendatu izanak Elkarte horretan sortu duen kezka eta egonezina agertuz egindako idazkiaren jakitun geratu da, eta hori Legebiltzarreko Taldeei bildatzeko erabakia hartu du. Halaber, idazkia Arartekoari bidaltzen zaio.

Arreta osoz,



Eduardo Mancisidor Artaraz